



ARTXIBO-FORMATUEN BIHURTZAILEA CONVERSOR DE FORMATOS DE ARCHIVOS

11

DEFINIZIOA Zer da?

Webgunetik edo gailuren batetik —hala nola sakelakoak edo kamera digitalak— artxiboak behera kargatzean era askotako artxibo-formatuak agertuko zaizkigu. Artxiboa zer motatakoa den jakiteko haren luzapenari begiratu behar zaio. Eskuarki, luzapena honela adierazten da: puntu bat gehi 2, 3 edo 4 letra (.xxx). Zergatik eman behar diot garrantzia horri? Zer artxibo mota den jakin behar dugu gure ordenagailuan ditugun programekin funtzionatuko ote duen jakiteko edo programa bereziren bat beharko ote dugun gure programetara bihurtzeko, ikusteko edo editatzeko.

DEFINICIÓN ¿Qué es?

Al descargar archivos de la Web o de algún dispositivo como teléfonos móviles o cámaras digitales nos encontraremos indudablemente con diferentes formatos de archivos. La forma de identificar el tipo de archivo es mirando su extensión, que normalmente se expresa con un punto seguido por 2, 3, ó 4 letras (.xxx). ¿Por qué me debería importar? Necesitamos identificar el tipo de archivo para saber si funcionará con los programas que poseo en mi ordenador o si necesitare algún tipo especial de programa para convertirlo a los que poseo, para verlo o editarlo.

BALIABIDEAREN ERABILERA Nola erabiltzen da?

Artxiboaren formatua bihurtzeko, helburuko formatua eta jatorrizko formatua zeintzuk diren jakin behar da, eta formatuak bihurtzeko programa bat eduki. Testu-, audio- eta bideo-editoreek artxiboak hainbat formatutan ireki eta gordetzeko aukera eman ohi dute. Aukera hori ez badugu, hartarako berariazko programa bilatu eta instalatu behar dugu ordenagailuan.

Hainbat programak artxibo-blokeak bihurtzea ahalbidetzen du. Aukera hori izugarri eraginkorra da. Oro har, bihurtze-prozesuan artxibo bako bako beste izen bat eman dakieke, eta, horri esker, errazago bereiziko dira

jatorrizko artxiboak eta eraldatutakoak.

Artxiboen formatua aldatzearen beste helburu bat dokumentua (multimedia) babestea da, aldatu ezin den formatu bat emanaz. Adibidez, testu-artxibo bat PDF bihurtzea.

**UTILIZACIÓN
RECURSO
¿Cómo se usa?**

Para poder convertir el formato de archivo debo conocer el formato destino y el formato origen y poseer un programa que los convierta. Usualmente los editores de texto, audio y video nos brindan la posibilidad de abrir y guardar en varios formatos. Si no poseo esta posibilidad debo buscar e instalar en mi ordenador un programa especial para dicha tarea.

Existen programas que permiten la conversión de bloques de archivos, lo cual supone una opción sumamente efectiva. En general, durante el proceso de reconversión es posible renombrar los archivos, lo cual puede facilitar la distinción entre archivos originales y transformados.

Otra finalidad de la conversión de formatos de archivo es la protección de un documento (multimedia), transformándolo en un formato no modificable. Por ejemplo, transformar un archivo de texto en PDF.

**IKASGELARAKO
GOMENDIOAK**

Artxiboaren formatua aldatzen denean informazio pixka bat ere galdu ohi da ia beti. Testuen kasuan, testuaren formatua eta orrian duen antolaketa gal daitezke; bideoen kasuan, irudiaren kalitatea. Hortaz, ahalik eta bihurketa gutxien egitea eta jatorrizko artxiboaren kopia bat gordetzea komeni da, artxiboaren formatua aldatzean jatorrizko artxiboa gal ez dadin. Gomendagarria da azken formatu bat baino gehiago erabiltzeko aukera izatea eta saiatuz eta huts eginez formatu egokia aukeratzea. Beti ez da formatu bera aukeratuko. Adibidez, bideo bat editatzeko, AVI formatua aukeratuko dugu beharbada; eta sarean gordetzeko, FLV formatua.

**RECOMENDACIONES
PARA EL AULA**

La conversión casi siempre viene asociada con una pérdida parcial de información, en el caso de textos puede ser su formato y distribución en la hoja, en caso de videos en la calidad de imagen, por lo que conviene realizar la mínima cantidad de conversiones. Siempre es conveniente guardar una copia del archivo original, evitando que una transformación elimine el archivo original. Es recomendable poseer varios posibles formatos finales y mediante prueba y error elegir el adecuado, que no siempre será el mismo. Por ejemplo para editar un video puede que elijamos un formato AVI y para almacenarlo en la

red un formato FLV

**GOMENDATUTAKO
GUNEAK**
Non aurki dezaket?

Quick Media Converter

<http://www.cocoonsoftware.com/>

Programa horrek ia edozein motatako multimedia artxiboen formatua aldatzen du.

Format Factory

http://www.formatoz.com/ES_index.html

Format Factory edozein multimedia artxibo ezagun bihurtzeko behar den guztia duen formatu-bihurtzailea da.

NW Docx Converter

<http://nw-docx-converter.softonic.com/>

NW Docx Converter-ek DOCX artxiboak (Microsoft Word 2007renak) askoz ere unibertsalagoa den formatura (testu aberastua) bihurtzen ditu —RTF formatua edozein testu-prozesadoretatik ireki eta edita daiteke—, baita PDF formatura ere.

PrimoPDF

<http://primopdf.softonic.com/>

Gero eta tresna gehiago daude edozein formatutako testu eta dokumentuak PDFra bihurtzeko. Horrek abantaila ugari ematen du: dokumentua sortu den bezalaxe bistaratzea, letra-tipoa, formatua eta grafikoak ezertxo ere aldatu gabe, edozein euskarri, programa edo sistema eragile erabilia ere. Primo PDF da programa horietako bat, eta, besteak bezalaxe, sisteman inprimagailu birtualaren moduko bat instalatuz funtzionatzen du.

**SITIOS
RECOMENDADOS**
¿Dónde lo
encuentro?

Quick Media Converter

<http://www.cocoonsoftware.com/>

Este programa cambia el formato de casi cualquier tipo de archivo multimedia.

Format Factory

http://www.formatoz.com/ES_index.html

Format Factory es un conversor de formatos que reúne todo lo necesario para convertir cualquier archivo multimedia conocido.

NW Docx Converter

<http://nw-docx-converter.softonic.com/>

NW Docx Converter transforma los archivos DOCX (propios del Microsoft Word 2007) a un formato mucho más universal como es el formato RTF (texto enriquecido) que se puede abrir y editar desde cualquier procesador de texto, o incluso a formato PDF.

PrimoPDF

<http://primopdf.softonic.com/>

Cada vez hay más herramientas que nos permiten convertir textos y documentos en cualquier formato a PDF, con las ventajas que ello conlleva: poder visualizar el documento tal y como ha sido concebido, con la fuente, formato y gráficos intactos, sea cual sea el soporte, el programa o el sistema operativo utilizado. PrimoPDF es uno de estos programas que, como los demás, funciona instalando un especie de impresora virtual en tu sistema.